



Ana Elozegi Serna
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Aulki hutsak

Pasatu berri ditugu urteko azken egunak, eta egun horietan ohikoa izaten da urtearen errepasoa egitea; urte ona edo txarra izan den, familia alboan dugula horrelako hausnarketak egin ohi dira mahaiaren bueltan. Nahiz eta ohiturak aldatzen ari diren, azken urteotan gazteak eta ez hain gazteak kanpora bidaiatzeko ohitura hartzen ari dira edota mendira joatekoa. Berdin da han edo hemen, urte zaharraren azken hondarretan edota lehenengoaren lehen koskadatan, ohiko samarra izaten da era horretako hausnarketak egitea.

Gabonen inguruan pentsatzen jarri eta ideia desberdinak pizten zaizkit buruan. Alde batetik, haurren poza, Olentzeroren eta Mari Domingiren magia tarteko. Bestetik, familiak elkartzen direnean mugitzen diren energia desberdinak datozkit burura; batzuen zoriona eta besteak ezinegona. Baina bada abenduan zehar gogoan daukadan irudi indartsu bat: Aulki hutsen irudia. Izan ere, falta diren horien presentzia zenbat handitzen den Gabonetan. Hain justu, falta diren horien falta handitzen delako.

Aulki huts bat dago nire lagun eta lankidearen etxean, Altsasun, seme gaztea urruti dagoelako, 400 egun daramatzalako espetxean injustizia bat dela-eta. Hura

besarkatu nahi eta ezin,
eta amorrua latza da gure
jendartean dagoen justizia
falta horrek gure maitasu-
nezko kateak eten nahi di-
tuenean...

Dena den, egunez egun, festaz festa eta ekimenez ekimen Altsasuko herriak eta beraien familiek erakutsi dute haien presentzia egunero oroitzen dutela eta 2018an ere beraien alde borrokatuko direla, askatasun eta justiziaren bila segituko dutela.

Aulki hutsak; joan berri den urtean hil diren horienak guztienak. Bakioztaren familian bete ezin diren aulkiak utzi dituzte. Harremanak osasun zentroan ere baditugu aulki

hutsak. Gure paziente eta lagunak ere joan zaizkigu, inguruan aulkiak hutsik utzita.

Banantze prozesu gogorretan murgilduta dauden etxeetan ere izaten dira aulki hutsak; aldaketak, kus-todiak, gurasoen arteko borroak...

Eta ezin ahaztu Maialen Lujanbiok azken finaleko bakarkakoan aipatutako aulki hutsa; drogek, mendekotasunek eta, orokorrean, egoera oso latzek familiaritik urrundu dituzten horiek guztiek hutsik utzitako aulkiak.

Gabonek badute horrelako indar arraro bat, samina aregotzeko gaitasuna. Era berean, maitasunaren indarra handitzeko dohaina ere badute. Lagunak eta senideak prest daude laguntzeko; besarkada gozoak ekarriz edo besterik gabe behar duenaren ondoan egonez, gure bihotza laztantzeko gaitasuna dute.

Urte zaharra joan eta etorri da berria. Zaharra agurtze-ko, eskerrak eman behar dizkiegu bidelagun izan ditugu-nei, hemen daudenei eta ez daudenei. Eta berria hartzeko prest gaude. Espero dezagun 2018ko momentu gazi-gozo guztietan, lagun, familia eta ingurukoei begirada eta laz-tan sendagarriak emateko gai izatea; elkarri begiratzuz, el-kar zainduz eta gatazkak ondo bideratuz. Gure desioei eus-tsiz bizitzari hel diezaiogun. •



Sasoi honetan aulki hutsek presentzia mingarria hartzen dute.

GAUR8: